

I. Atala / Sección I

**Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia****Batzar Nagusiak / Juntas Generales****1/2011 FORU ARAUA, martxoaren 24koa, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Gaineko Zergari buruzkoa.**

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Gaineko Zergari buruzko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Araua onartu dutela 2011ko martxoaren 24an, eta hura aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

Bilbon, 2011ko martxoaren 25ean.

Bizkaiko Ahaldu Nagusia,
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

**ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO
DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO
MARTXOAREN 24KO 1/2011 FORU-ARAU****HITZAURREA**

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga zeharkako zerga bat da, hainbat zerga-egitate zergapetzen dituen. Egitate horiek hiru modalitatetan banatzen dira:

- Kostubidezko Ondare Eskualdaketak (KOE): egitate mota horrek enpresa-jarduera ez den ondare-trafikoa zergapetzen du, hau da, izaera zibileko edo norbanakoen arteko jarduerak.
- Sozietate-eragiketak (SO): egitate mota horrek enpresen finantziazioaren alderdirik garrantzitsuenak zergapetzen ditu. Alderdi horiek sozietate-kontratutik eta hari lotutako ondare-lekualdaketatik eratorritakoak dira, hala nola sozietateen eraketa edo kapital-gehikuntza.
- Egintza Juridiko Dokumentatuak (EJD): egitate mota horrek notario-agiriak zergapetzen ditu, hala nola eskritura publikoak edo merkataritzakoak eta kanbio-letrak.

Hainbeste zerga-egitate egoteak ez du eragozten guztiak batera arautzea. Bizkaiko Lurralde Historikoan, arautze-lan horren aurrekaririk hurbilena Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 21eko 3/1989 Foru Araua da.

Hogei urte baino gehiago pasatu dira 1989ko foru araua argitaratu zenetik; denbora horretan, zergan eragina izan duten zeharkako hainbat xedapen onartu dira, eta aldaketa ugari egin dira zerga bera arautzen duen testuan. Azken aldaketek ondorioak izan dituzte zergaren kudeaketan, sistema telematikoa berri bat ezarri baita autoliquidazioak aurkezteko eta haiei dagokien ordainketa egiteko.

Horrez gainera, zerga arautzeko proiektu berriarekin desagertu egin dira zenbait zehaztugabetasun, eta ordeztu egin dira aurreko foru arauan terminologia zaharkituaren gainean egiten ziren zenbait aipamen. Era berean, foru arauaren testua Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorreko termino eta kontzeptuei egokitu zaie.

Hala ere, bada beste funtsezko arrazoi bat Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 21eko 3/1989 Foru Araua ordeztuko duen foru arau berri bat onartzeko: foru arau horren egitura zergak arautzeko eredu zahar baten araberakoa da. Eredu horretan, foru arauak laburrak eta eduki gutxikoak ziren, eta erregelamenduan jasotzen ziren zergari buruzko gainerako arauak.

NORMA FORAL 1/2011, de 24 de marzo, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

Hago saber que las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado en fecha 24 de marzo de 2011, y yo promulgo y ordeno la publicación de la Norma Foral 1/2011, de 24 de marzo, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, a los efectos que todos los ciudadanos, particulares y autoridades, a quienes sea de aplicación, la guarden y la hagan guardar.

Bilbao, a 25 de marzo de 2011.

El Diputado General de Bizkaia,
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

**NORMA FORAL 1/2011, DE 24 DE MARZO,
DEL IMPUESTO SOBRE TRANSMISIONES PATRIMONIALES
Y ACTOS JURÍDICOS DOCUMENTADOS****PREÁMBULO**

El Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados es un impuesto de naturaleza indirecta que grava diversos hechos imponible, agrupados en tres modalidades:

- Transmisiones Patrimoniales Onerosas (TPO): sujeta a tributación el tráfico patrimonial que no se considera actividad empresarial sino aquellas actuaciones de carácter civil o entre particulares.
- Operaciones Societarias (OS): somete al impuesto los aspectos más relevantes de la financiación empresarial, derivados del contrato de sociedad y los desplazamientos patrimoniales ligados al mismo, como la constitución de sociedades o el aumento de capital.
- Actos Jurídicos Documentados (AJD) grava los documentos notariales, tales como escrituras públicas, o mercantiles, como las letras de cambio.

Esta dispersión de hechos imponibles no impide la regulación unitaria de los mismos cuyo antecedente más cercano en el Territorio Histórico de Bizkaia lo encontramos en la Norma Foral 3/1989, de 21 de marzo, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

Han pasado más de 20 años desde que vio la luz la Norma Foral del año 1989 y el Impuesto se ha visto afectado por la aprobación de diversas disposiciones de carácter transversal, al mismo tiempo que el texto normativo ha sido objeto de múltiples y variadas modificaciones durante este periodo, las últimas de las cuales han afectado a la gestión del Impuesto, en concreto, a la implantación de un nuevo sistema de presentación telemática de autoliquidaciones y su correspondiente pago por el mismo procedimiento.

Además, con el nuevo proyecto normativo se superan diversas imprecisiones y se sustituye determinadas referencias a terminología obsoleta contenidas en la anterior Norma Foral, asimismo se adapta el texto a los términos, conceptos y figuras de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

No obstante, existe otro motivo fundamental para la aprobación de una nueva Norma Foral que sustituya a la Norma Foral 3/1989, de 21 de marzo, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, basado en que la estructura de la citada Norma Foral responde a un modelo antiguo de regulación fiscal en el que las Normas Forales eran cortas y de escaso contenido, dejando en manos del reglamento el resto de la regulación del impuesto.

Eredu hori zaharkitua geratu da erabat, eta, ondorioz, zerga-sistema moderno baten arautegiaren oinarria foru arau luze bat izan behar da, zergaren oinarritzko elementuak zehaztuko dituen, baina, aldi berean, botereen banaketaren printzipio klasikoa errespetatuko duena eta zergaren bigarren mailako alderdiak eta prozedurazkoak erregelamendu baten bidez garatzeko utziko dituen.

Azaldutako arrazoiengatik, foru arau honek ez du alde batera uzten zerga-sistema; alderantziz, foru arau honen helburu bakarra biltze lan bat egitea da, zergadunari Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuaren gaineko Zerga konplexu honen arautegia erraz ulertzeko aukera emateko.

Lan kodifikatzaile garrantzitsu honen adibide gisa, salbuespenei buruzko artikulua nabarmendu behar dira. Salbuespen subjektiboak, objektiboak eta bestelakoak bereizi dira, aurreko foru arauan jaso izan diren aldaketa ugariak eta zeharkako beste arautegi batzuetan jasotako salbuespenak testu bakarrean sartzeko.

Hala ere, biltze lan hori zergan hobekuntzaren bat sartzeko ere baliatu da. Hala, bada, finken errentamenduak egiten direnean, desgertu egin da nahitaez efektu tinbredunen bidez ordaintzeko bete-beharra, merkataritzako trafikoa errazteko eta efektu horiek dagoeneko erabiltzen ez direlako.

Era berean, prozedura berriak sartu dira zergan, hala nola notario-indizetik eratorritako informazio errekerimenduak eta efektu tinbredunen truke arrunta.

Azkenik, esan behar da foru arau hau 2011ko apirilaren 1ean jarriko dela indarrean.

ATARIKO TITULUA

I. KAPITULUA

IZAERA ETA EDUKIA

1. artikulua.—Zergaren modalitateak

1. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuaren gaineko Zerga zeharkako zerga bat da, ondoren azalduko diren artikuluetan ezarritakoaren arabera, honako egintza hauek zergapetzen dituen:

1. Kostubidezko ondare eskualdaketak.
2. Sozietate-eragiketak.
3. Egintza juridiko dokumentatuak.

2. Ezein kasutan ezingo da egintza bera aldi berean likidatu kostubidezko ondare eskualdaketen kontzeptuan eta sozietate-eragiketenean.

Egintza bati dagokion zergaren likidazioa bi kontzeptu horietan egin ahal denean, sozietate-eragiketen modalitatearen ondoriozko zergapetzeak izango du lehentasuna, berariaz besterik adierazi ezean.

3. Kasu batean bakarrik izango dira bateraezinak egintza edo kontratu bat kostubidezko ondare eskualdaketen modalitatean edo sozietate-eragiketen modalitatean zergapetzea eta haren agiri-euskarria egintza juridiko dokumentatuen zergapetzea: zerga araupetzen duten arauetan berariaz hala ezartzen denean.

2. artikulua.—Egintza edo kontratuaren kalifikazioa

1. Foru arau honek arautzen duen zerga egintza likidagarriaren edo kontratu likidagarriaren benetako izaera juridikoaren arabera eskatuko da, alderdiek emandako izena edozein dela ere, eta haren baliagarritasunari eta eraginkortasunari eragin diezaieketen formakatsak zein barne-barneko akatsak kontuan hartu gabe.

2. Baldintzaren bat duten kontratu edo egintzetan, kalifikazioa Kode Zibilean eta funtsezko arau zibiletan dauden preskripzioen arabera egingo da. Baldintza hori etengarria izanez gero, zerga ez da likidatuko harik eta baldintza bete arte, eta likidazioaren gero-erapena dagokion erregistro publikoan agerraraziko da, ondasunen inskripzioan. Baldintza suntsiarazlea izanez gero, zerga eskatuko egingo da, baina horren asmoa zera izango da: baldintza betetzen

El citado modelo está claramente superado y por eso la normativa de un sistema fiscal moderno se debe basar en una Norma Foral extensa que contenga la determinación de los elementos básicos del impuesto, respetando el clásico principio de separación de poderes, y dejando para un desarrollo reglamentario aquellos aspectos secundarios y procedimentales del Impuesto.

Por todos los motivos expuestos, la presente Norma Foral no supone una ruptura con el sistema impositivo, todo lo contrario lo único que se busca es realizar una labor compiladora que permita al contribuyente conocer de forma más sencilla la normativa del complejo Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

Como ejemplo de este importante trabajo codificador, destacan los artículos dedicados a las exenciones divididos en exenciones subjetivas, objetivas y otras, tratando de incorporar en un único texto tanto las abundantes modificaciones que se habían recogido en la anterior Norma Foral como las exenciones contempladas en otras normativas de carácter transversal.

No obstante, se ha aprovechado esta labor compiladora para introducir alguna mejora en el impuesto. Así hay que destacar, la desaparición de la obligatoriedad del pago mediante efectos timbrados en la constitución de arrendamientos de fincas, al objeto de facilitar el tráfico mercantil y dado el desuso de los citados efectos.

Asimismo se incorporan nuevos procedimientos al impuesto como son los requerimientos de información derivados del índice notarial y el canje ordinario de efectos timbrados.

Por último, comentar que la entrada en vigor de la presente Norma Foral se fija en el 1 de abril de 2011.

TÍTULO PRELIMINAR

CAPÍTULO I

NATURALEZA Y CONTENIDO

Artículo 1.—Modalidades del Impuesto

1. El Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados es un tributo de naturaleza indirecta que, en los términos establecidos en los artículos siguientes, gravará:

- 1.º Las transmisiones patrimoniales onerosas.
- 2.º Las operaciones societarias.
- 3.º Los actos jurídicos documentados.

2. En ningún caso un mismo acto podrá ser liquidado por el concepto de transmisiones patrimoniales onerosas y por el de operaciones societarias.

Cuando pudiera proceder la liquidación del Impuesto correspondiente a un mismo acto por ambos conceptos, prevalecerá el gravamen por la modalidad de operaciones societarias, salvo disposición expresa en contrario.

3. El gravamen de un acto o contrato por la modalidad de transmisiones patrimoniales onerosas o por la de operaciones societarias, sólo será incompatible con el de su soporte documental por la de actos jurídicos documentados cuando así resulte expresamente de las normas reguladoras del Impuesto.

Artículo 2.—Calificación del acto o contrato

1. El Impuesto que regula esta Norma Foral se exigirá con arreglo a la verdadera naturaleza jurídica del acto o contrato liquidable, cualquiera que sea la denominación que las partes le hayan dado, prescindiendo de los defectos tanto de forma como intrínsecos que puedan afectar a su validez y eficacia.

2. En los actos o contratos en que medie alguna condición, su calificación se hará con arreglo a las prescripciones contenidas en el Código Civil y normas sustantivas civiles. Si fuera suspensiva no se liquidará el Impuesto hasta que ésta se cumpla, haciéndose constar el aplazamiento de la liquidación en la inscripción de bienes en el Registro Público correspondiente. Si la condición fuera resolutoria se exigirá el Impuesto desde luego a reserva, cuando

denean, itzulketa foru dekretu honen 74. artikuluko arauen arabera egitea.

3. Kontratuan ezartzen bada hitzartutako prezioa osorik ordaindu arte jabaria erreserbatutik egongo dela, zergaren likidazioari eta ordainketari dagokionez eskualdaketa baldintza batekin egiten dela ulertuko da: prezioa hitzartu bezala ordaindu ezean, kontratua suntsiarazi egongo dela.

4. Nahiz eta interesdunek hala agerrarazi, egintza edo kontratuaren eraginkortasuna administrazioaren baimen edo onespen baten arabera izatea ez da suntsiarazpen-baldintzatatzat joko, baimen-onespenok aginduzkoak izan arren. Itzultzeko eskubidea edukiz gero, ez da etengo.

3. artikulua.—Ondasunen kalifikazioa.

1. Aurreko artikuluan xedatutako ondorioetarako, zergapeko ondasunak beren izaeraren, xedearren, erabileraren edo aplikazioaren arabera juridikoki kalifikatzeko, Zuzenbide Zibilak xedatzen duena beteko da, edo, halakorik ezean, Administrazio Zuzenbideak horri buruz xedaturikoa.

2. Zerga ordaintzeko, ondasun higieizintzat hartuko dira modu iraunkorrean ezarritako instalazio guztiak, nahiz eta itxurgatik garraiarri izan eta haiek dauden lurrak beren jabearenak izan ez.

3. Halaber, ondasun higieizintzat hartuko dira beren xedea-gatik edo ezaugarriengatik ibai edo laku bateko edo kostaldeko leku finko batean egon behar duten ontziak.

Era berean, ondasun higieizintzat hartuko dira higiezin baten jabeak higiezin horretan egiten den industriarako edo ustiapenerako dituen makinak eta tresnak, nahiz eta makina-tresna horiei emandako balioak eta higiezinari emandakoak ezberdinak izan.

4. artikulua.—Negozio juridikoak piltzea

1. Negozio juridiko bati ezin eska dakiok eskubide bat baino gehiago ordaintzea, baina agiri edo kontratu batek zerga beraren pean baina bereizita dauden negozio batzuk biltzen dituenen, haietariko bakoitzari dagokion eskubidea eskatuko da, beste zerbait adierazten den kasuetan izan ezik.

2. Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, negozio juridikoaren agiri-euskarria zergapetu egin daiteke, foru dekretu honen 1. artikuluko 3. paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritz.

5. artikulua.—Eskualdatutako ondasunak lotzea

1. Eskualdatutako ondasunak eta eskubideak, edozein dela ere haien edukitzea, eskualdaketa zergapetzen duten zergak ordaindu beharri loturik egongo dira, salbu eta edukitzea erre-registroko fede publikoak babesturiko hirugarren bat denean edo, ondasun higikor inskribaezinen kasuan, merkataritzako edo industriako establezimendua fede onez eta bidezko tituluz eskuratu dela frogatzen denean. Lotura hori notarioek agerrarazi beharko dute, eskuesten dituzten agirietan dagokion ohararazpena jarritz. Erregistroan lotura berariaz jasota dagoenean, orde, gorago aipatu den hirugarren hori ez da egongo erreregistroko fede publikoaren babespean.

2. Zergapeko batek aurkezten duen likidazioa kontuan hartuta, jabetzaren erregistratzaileek edo merkataritzakoek ofizioz agerraraziko dute halakoetan zergarekiko lotura adierazteko aurrez ikusiten den orri-bazterreko oharra. Ohar horretan, zerga ordaindu dela edo zergarekiko loturarik ezaren nahiz harekiko salbuespenaren alegazioa jasoko dira.

3. Salbuespen bat, hobari bat edo bestelako zerga-onuraren bat ematen denean, zergadunak betekizunen bat bete behar badu onura horiek behin betiko izan daitezen eraginkor, zerga-administrazioak zera jaso behar du zerga-onura agerrarazten den oharrean: onura hori lortzeko, goian aipatutako betekizuna bete behar dela.

Jabetzaren erregistratzaileek edo merkataritzakoek orri-bazterreko ohar baten bidez adieraziko dute ezen, titularrak zeinahi dela ere, eskualdatutako ondasunak zerga ordaintzeari lotuta daudela, baldin eta ez badira epearen barruan betetzen onurak eman zituen arauan onurok behin betiko emateko eskatzen ziren betekizunak.

la condición se cumpla, de hacer la oportuna devolución según las normas del artículo 74 de esta Norma Foral.

3. Cuando en el contrato se establezca la reserva del dominio hasta el total pago del precio convenido se entenderá, a efectos de la liquidación y pago del impuesto, que la transmisión se realiza con la condición resolutoria del impago del precio en las condiciones convenidas.

4. No tendrá la consideración de condición suspensiva, aun cuando así se haga constar por los interesados, el que la efectividad del acto o contrato dependa de una autorización o aprobación administrativa, aun cuando éstas sean preceptivas, sin perjuicio del derecho a la devolución en su caso.

Artículo 3.—Calificación de bienes

1. A los efectos de lo dispuesto en el artículo anterior, para la calificación jurídica de los bienes sujetos al Impuesto por razón de su distinta naturaleza, destino, uso o aplicación, se estará a lo que respecto al particular dispone el Derecho Civil o, en su defecto, el Derecho Administrativo.

2. Se considerarán bienes inmuebles, a efectos del Impuesto, las instalaciones de cualquier clase establecidas con carácter permanente, aún cuando por la forma sean transportables y el terreno sobre el que se hallen situadas no pertenezca al dueño de los mismos.

3. También se considerarán bienes inmuebles los buques destinados por su objeto y condiciones a permanecer en un punto fijo de un río, lago o costa.

Asimismo, se considerarán bienes inmuebles las máquinas, instrumentos o utensilios destinados por el propietario de un inmueble a la industria o explotación que se realice en el mismo, aun cuando se les asigne valores distintos a los del inmueble.

Artículo 4.—Concurrencia de negocios jurídicos

1. A un solo negocio jurídico no puede exigirse más que el pago de un solo derecho, pero cuando un mismo documento o contrato comprenda varios de ellos sujetos al Impuesto separadamente, se exigirá el derecho señalado a cada uno de aquéllos, salvo en los casos en que se determine otra cosa.

2. Lo dispuesto en el apartado anterior se entiende sin perjuicio del gravamen que pueda corresponder por el soporte documental del negocio jurídico, de conformidad con lo que establece el apartado 3 del artículo 1 de esta Norma Foral.

Artículo 5.—Afección de los bienes transmitidos

1. Los bienes y derechos transmitidos quedarán afectos, cualquiera que sea su poseedor, a la responsabilidad del pago de los impuestos que gravan tales transmisiones, salvo que aquél resulte ser un tercero protegido por la fe pública registral o se justifique la adquisición de los bienes con buena fe y justo título en establecimiento mercantil o industrial en el caso de bienes muebles no inscribibles. La afección la harán constar los Notarios por medio de la oportuna advertencia en los documentos que autoricen. No se considerará protegido por la fe pública registral el tercero cuando en el Registro conste expresamente la afección.

2. Los Registradores de la Propiedad o Mercantiles practicarán de oficio la nota marginal de afección prevista a la vista de la correspondiente autoliquidación presentada, constanding en ella el pago del tributo o la alegación de no sujeción o de la exención correspondiente.

3. Siempre que se conceda una exención, bonificación u otro beneficio fiscal cuya definitiva efectividad dependa del ulterior cumplimiento por el contribuyente de cualquier requisito, la Administración tributaria hará figurar en la nota en que el beneficio fiscal se haga constar que el mismo está condicionado al cumplimiento del requisito.

Los Registradores de la Propiedad o Mercantiles harán constar por nota marginal la afección de los bienes transmitidos, cualquiera que fuese su titular, para el caso de no cumplirse en los plazos señalados por la norma que concedió los beneficios los requisitos en ella exigidos para la definitiva efectividad de los mismos.

4. Hala ere, zerga-administrazioak ordaintzeko loturari buruzko oharra indargabetzeko baimena eman ahaliko du, aurretiaz egiaztatu ondoren bidezkoak direla salbuespena, zergapetuta ez egotea, edo, hala denean, zerga ordaintza.

II. KAPITULUA

ZERGAREN APLIKAZIO-EREMUA

6. artikulua.—Zerga ordainaraztea

Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentuen gaineko Zergaren ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio honako kasu hauetan:

A) Ondare eskualdaketak:

1. Ondasun higiezinaren kostubidezko eskualdaketetan eta errentamenduetan bai eta haien gaineko eskubide errealeen kostubidezko eraketa eta lagapenean (are berme eskubideenean ere), baldin eta ondasunak Bizkaiko lurraldean badaude.

Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 108. artikuluan ageri diren kasuetan, eskualdatzen diren baloreen jabe den erakundearen aktiboa osatzen duten ondasun higiezinak Bizkaiko lurraldean daudenean.

2. Ondasun higikorren, abereen eta kredituen kostubidezko eskualdaketetan, bai eta haien gaineko eskubideen kostubidezko eraketa eta lagapenean, baldin eta, eskuratzaila pertsona fisikoa izanik, haren ohiko egoitza Bizkaian badago, edo, hura pertsona juridikoa izanik, zerga-egoitza lurralde honetan badu.

Goian adierazi dena gorabehera, bi salbuespen hauek ezarzen dira:

a) Akzioen, harpidetza-eskubideen, obligazio eta antzeko tituluen eta gainerako baloreen eskualdaketetan, baita sozietateen partaidetzetan ere, baldin eta eragiketak Bizkaian egiten badira.

b) Itsasontzi edo aireontzien gaineko higigarrien hipoteka edo eskualdatzerik gabeko baliak eratzen direnean, baldin eta egintza horiek Bizkaian inskribatu behar badira.

3. Mailegu xeheak, fidantzak, higiezin ez direnen errentamenduak eta pentsioak eratzen direnean, mailegu-hartzaileak, fidantza-hartzaileak, errentariak edo pentsiodunak, pertsona fisiko izanik, ohiko egoitza Bizkaian badu, edo, pertsona juridikoa izanik, zerga-egoitza lurralde honetan badu.

Hala ere, berme erreala duten maileguen kasuan, hipoteka-tutako ondasun higiezinak Bizkaiko lurraldean daudenean, edo higigarrien hipotekak edo lekualdaketarik gabeko baliak lurralde honetan inskribatu ahal direnean.

Mailegu baten bermea Bizkaian eta beste lurralde batean (foralean edo erkidean) dauden ondasun higiezinaren gaineko hipoteka bat bada edo Bizkaian eta beste lurralde batean inskribatu ahal den higigarrien hipoteka edo lekualdaketarik gabeko bahia bada, batzuei eta besteei ezarritako erantzukizunaren arabera ordainduko dio administrazio bakoitzari, edo, eskrituran erantzukizuna berariaz zehaztu gabe badago, ondasunen balio egiaztatuen arabera.

4. Ondasunen administrazio emakiden kasuan, ondasunok Bizkaiko lurraldean baldin badaude, eta obra burutzapenetan eta zerbitzu-ustiapenen kasuan, Bizkaian egiten edo ematen baldin badira. Arau horiek administrazio emakidekiko parekatzeagatik ordaintzen duten egintza eta negozio administratiboetan ere aplikatuko dira.

Bizkaiko lurralde eremua gainditzten duten ondasunen ustiapenen emakidak direnean, Bizkaiko lurraldean hartzen duten azaleraren arabera kobratuko da zerga.

Bizkaiko lurralde eremua gainditzten duten obrak egiteko emakiden kasuan, Bizkaiko lurraldean egingo diren obren zenbateko balioetsiaren arabera kobratuko da zerga.

Bizkaiko lurralde eremua gainditzten duten zerbitzu-ustiapenen emakidak direnean, haiei dagozkien biztanleriak eta azalerak zerbitzu-ustiapen horietan inplikaturako gainerako lurraldeen azalera guztian duten portzentajeen batez besteko aritmetikoaren arabera kobratuko da zerga.

4. No obstante, previa comprobación de la procedencia de la exención, no sujeción o, en su caso, pago del impuesto, la Administración tributaria podrá autorizar la cancelación de la nota de afectación.

CAPÍTULO II

ÁMBITO DE APLICACIÓN DEL IMPUESTO

Artículo 6.—Exacción del Impuesto

La exacción del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados corresponderá a la Diputación Foral de Bizkaia en los siguientes casos:

A) Transmisiones Patrimoniales:

1. En las transmisiones onerosas y arrendamientos de bienes inmuebles y en la constitución y cesión onerosa de derechos reales, incluso de garantía, que recaigan sobre los mismos, cuando éstos radiquen en territorio vizcaíno.

En los supuestos previstos en el artículo 108 de la Ley 24/1988, de 28 de julio, del Mercado de Valores, cuando radiquen en territorio vizcaíno los bienes inmuebles integrantes del activo de la entidad cuyos valores se transmiten.

2. En las transmisiones onerosas de bienes muebles, semovientes y créditos, así como en la constitución y cesión onerosas de derechos sobre los mismos, cuando el adquirente, siendo persona física, tenga su residencia habitual en Bizkaia y, siendo persona jurídica, tenga en este territorio su domicilio fiscal.

No obstante lo anterior, se establecen las dos salvedades siguientes:

a) En la transmisión de acciones, derechos de suscripción, obligaciones y títulos análogos y demás valores, así como participaciones sociales, cuando las operaciones se formalicen en Bizkaia.

b) En la constitución de hipoteca mobiliaria o prenda sin desplazamiento o se refiera a buques, embarcaciones o aeronaves, cuando tales actos hayan de ser inscritos en Bizkaia.

3. En la constitución de préstamos simples, fianzas, arrendamientos no inmobiliarios y pensiones, cuando el prestatario, afianzado, arrendatario o pensionista, siendo persona física, tenga su residencia habitual en territorio vizcaíno, o siendo persona jurídica, tenga en él su domicilio fiscal.

Sin embargo, si se trata de préstamos con garantía real, cuando los bienes inmuebles hipotecados radiquen en territorio vizcaíno o sean inscribibles en el mismo las correspondientes hipotecas mobiliarias o prendas sin desplazamiento.

Si un mismo préstamo estuviese garantizado con hipoteca sobre bienes inmuebles sitos en territorio vizcaíno y en otro territorio, foral o común, o con hipoteca mobiliaria o prenda sin desplazamiento inscribible en Bizkaia y en otro territorio, tributará a cada Administración en proporción a la responsabilidad que se señale a unos y a otros y, en ausencia de esta especificación expresa en la escritura, en proporción a los valores comprobados de los bienes.

4. En las concesiones administrativas de bienes, cuando éstos radiquen en territorio vizcaíno, y en las ejecuciones de obra o explotaciones de servicios, cuando se ejecuten o presten en Bizkaia. Estas mismas reglas serán aplicables cuando se trate de actos y negocios administrativos que tributen por equiparación a las concesiones administrativas.

Tratándose de concesiones de explotaciones de bienes que superen el ámbito territorial de Bizkaia, se exigirá el Impuesto en proporción a la extensión que ocupen en el territorio vizcaíno.

Tratándose de concesiones de ejecución de obras que superen el ámbito territorial de Bizkaia, se exigirá el Impuesto en proporción al importe estimado de las obras a realizar en territorio vizcaíno.

Tratándose de concesiones de explotaciones de servicios que superen el ámbito territorial de Bizkaia, se exigirá el Impuesto en función de la media aritmética de los porcentajes que representen su población y su superficie sobre el total de los demás territorios implicados.

Bizkaiko lurralde eremua gainditzten duten emakida mistoen kasuan, emakidari dagokion zatiri aurreko hiru lerrokadetan jasotako irizpideak aplikatuta kobratuko da zerga.

Bizkaiko lurralde eremua gainditzten duten administrazio emakiden kasuan, zergaren ikuskapena Bizkaiko Foru Aldundiak egingo du, erakunde emakidadunaren zerga-egoitza Bizkaian badago.

B) Sozietate-eragiketak:

Honako inguruabar hauetarikoren bat gertatzen denean:

1. Erakundearen zerga-egoitza Bizkaian egotea.
2. Erakundearen sozietate-egoitza Bizkaian egotea, baldin eta benetako zuzendaritza-egoitza Europar Batasuneko kide den beste estatu bateko zerga-administrazioaren lurralde-eremuan ez badago, edota, halako batean egonik ere, estatu horrek sozietate-eragiketa antzeko zerga batekin zergapetzen ez badu.

3. Erakundeak bere trafik-eragiketak Bizkaian egitea, baldin eta benetako zuzendaritza-egoitza eta sozietate-egoitza Europar Batasuneko kide den beste estatu bateko zerga-administrazioaren lurralde-eremuan ez badaude, edota, halako batean egonik ere, estatu horrek sozietate-eragiketa antzeko zerga batekin zergapetzen ez badu.

C) Egintza juridiko dokumentatuak:

1. Notarioen eskrituretan, aktetan edo lekukotzetan, baldin eta Bizkaiko lurraldean baimentzen edo egilesten badira.

Aurreko paragrafoan adierazi dena gorabehera, egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergapetzearen kuota gradualari lotutako kasuetan, Bizkaian dagoenean ondasunak edo egintzak inskribatu behar diren edo haien idatzoharra egin behar den erregistroa.

2. Kanbio-letretan edo haien ordezkio gisa erabiltzen diren edo igorpen funtzioak betetzen dituzten agirietan, bai eta ordaindukoetan, bonoetan, obligazioetan eta titulu baliokideetan ere, baldin eta haien igorpena Bizkaiko lurraldean egiten bada, eta, atzerrian egiten denean, lehenbiziko edukitzailearen ohiko egoitza edo zerga-egoitza lurralde horretan badago.

3. Aurreneurritzko idatzoharretan, Bizkaian dauden erregistro publikoetan egiten direnean.

7. artikulua.—Ohiko egoitza eta zerga-egoitza

Kapitulu honetan ezarritakoa betetzeko:

A) Pertsona fisikoek ohiko egoitza Bizkaian dutela ulertzeko, hurrenez hurren honako arau hauek aplikatuko dira:

1. Pertsona fisikoaren ohiko egoitza Bizkaian egongo da, baldin eta, zerga sorrarazten den egunaren bezperatik atzerako urtean zehar Euskal Herrian beste inon baino egun gehiago egonik, Bizkaian ematen baditu beste bi lurralde historikoetan baino egun gehiago.

Egonaldien egun kopurua zehazteko, aldi baterako absentiak zenbatuko dira.

Besterik frogatu ezean, pertsona fisikoa Bizkaiko lurraldean dagoela uste izango da haren ohiko egoitza lurralde horretan dagoenean.

2. Interesen gune nagusia Bizkaian baldin badu.

Pertsona fisiko batek interesen gunea Bizkaian duela ulertuko da, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriaren zatirik handiena Euskal Herrian lortzen badu eta oinarri horren zatirik handiena Bizkaiko Lurraldean lortzen badu. Dena dela, bai lehenengo baldintza zehazteko bai bigarreneko, kanpoan utziko dira higikorren kapitalaren errentak eta ondare irabaziaz eta egotzitako zerga-oinarriak.

3. Bizkaian baldin badago Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaintzeko aitortu duen azken egoitza.

Bigarren araua aplikatuko da baldin eta, lehenengoan xedatutakoari jarraiki, ezinezkoa gertatu bada zergadunaren ohiko egoitza ezin lurraldetan -erkide zein foraletan- kokatzea. Hirugarren araua inguruabar bera gertatzen denean aplikatuko da, lehen eta bigarren arauetan xedatutakoa aplikatu ondoren.

Tratándose de concesiones mixtas que superen el ámbito territorial de Bizkaia, se exigirá el Impuesto mediante la aplicación a la parte correspondiente de la concesión de los criterios recogidos en los tres párrafos anteriores.

En el caso de concesiones administrativas que superen el ámbito territorial de Bizkaia, la inspección del Impuesto corresponderá a la Diputación Foral de Bizkaia cuando el domicilio fiscal de la entidad concesionaria radique en dicho territorio.

B) Operaciones Societarias:

Cuando concorra alguna de las siguientes circunstancias:

1. Que la entidad tenga en Bizkaia su domicilio fiscal.
2. Que la entidad tenga en Bizkaia su domicilio social, siempre que la sede de dirección efectiva no se encuentre situada en el ámbito territorial de otra Administración tributaria de un Estado miembro de la Unión Europea o, estándolo, dicho Estado no grave la operación societaria con un impuesto similar.

3. Que la entidad realice en Bizkaia operaciones de su tráfico, cuando su sede de dirección efectiva y su domicilio social no se encuentren situadas en el ámbito territorial de otra Administración tributaria de un Estado miembro de la Unión Europea o, estándolo, estos Estados no graven la operación societaria con un impuesto similar.

C) Actos Jurídicos Documentados:

1. En las escrituras, actas y testimonios notariales, cuando unas y otros se autoricen u otorguen en territorio vizcaíno.

No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, en los supuestos sujetos a la cuota gradual del gravamen de Actos Jurídicos Documentados, cuando radique en Bizkaia el Registro en el que deba procederse a la inscripción o anotación de los bienes o actos.

2. En las letras de cambio y documentos que suplan a las mismas o realicen funciones de giro, así como en los pagarés, bonos, obligaciones y títulos análogos, cuando su libramiento o emisión tenga lugar en territorio vizcaíno; si el libramiento se hubiera producido en el extranjero, cuando su primer tenedor tenga su residencia habitual o domicilio fiscal en dicho territorio.

3. En las anotaciones preventivas, cuando se practiquen en los Registros Públicos sitios en Bizkaia.

Artículo 7.—Residencia habitual y domicilio fiscal

A efectos de lo dispuesto en el presente Capítulo:

A) Se entenderá que las personas físicas tienen su residencia habitual en Bizkaia aplicando sucesivamente las siguientes reglas:

1. Cuando permaneciendo en el País Vasco un mayor número de días del año inmediato anterior, contado de fecha a fecha, que finalice el día anterior al del devengo del Impuesto, permanezca en el Territorio Histórico de Bizkaia mayor número de días de dicho período de tiempo que en cada uno de los otros dos Territorios Históricos.

Para determinar el período de permanencia se computarán las ausencias temporales.

Salvo prueba en contrario, se considerará que una persona física permanece en territorio vizcaíno cuando radique en él su vivienda habitual.

2. Cuando tenga en Bizkaia su principal centro de intereses.

Se considerará que se produce tal circunstancia cuando obteniendo una persona física en el País Vasco la mayor parte de la base imponible del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, obtenga en Bizkaia más parte de la base imponible que la obtenida en cada uno de los otros dos Territorios Históricos, excluyéndose, a ambos efectos, las rentas y ganancias patrimoniales derivadas del capital mobiliario y las bases imponibles imputadas.

3. Cuando sea Bizkaia el territorio de su última residencia declarada a efectos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

La segunda regla se aplicará cuando, de conformidad con lo dispuesto en la primera no haya sido posible determinar la residencia habitual en ningún territorio, común o foral. La regla tercera se aplicará cuando se produzca la misma circunstancia, tras la aplicación de lo dispuesto en las reglas primera y segunda.

B) Egoitza Espainiako lurraldean duten pertsona fisikoak Euskal Herriko egoiartzat hartuko dira, baldin eta ez badituzte lurralde horretan pasatzen egutegiko urtean 183 egun baino gehiago eta Euskal Herrian egiten badituzte beren enpresa edo lanbide jarduerak gehienak, edo han badituzte beren ekonomi interes gehienak.

Aurreko lerroakadan jasotakoaren arabera pertsona fisikoen ohiko egoitza Euskal Herrian badago, pertsona fisiko horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanletzat joko dira, baldin eta haien enpresa edo lanbide jardueraren edo interes ekonomikoen gune nagusia lurralde horretan kokatzen bada.

C) Pertsona fisiko bat Espainiako lurraldeko egoiliarra dela uste bada -ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan dutelako hala haren ezkontideak (legez bereizita ez badago) nola haren mendeko seme-alaba adingabeek-, pertsona fisiko horren ohiko egoitza Bizkaian dagoela ulertuko da. Uste horren aurka frogak aurkez daitezke.

D) Egoitza-aldaketek ez dute ondorerik izango, haien helburua zergengatik gutxiago ordaintzea denean.

E) Pertsona juridikoen zerga-egoitza Bizkaian dagoela ulertuko da, baldin eta sozietate-egoitza lurralde horretan badute eta administrazio-kudeaketa osoa eta negozioen zuzendaritza bertan zentralizaturik badaude. Bestelako kasuetan, kudeaketa edo zuzendaritza lan hori egiten den lekua izango da.

Aurreko irizpideen arabera zerga-egoitza zehazterik ez dagoenean, pertsona juridikoen zerga-egoitza Bizkaian dutela ulertuko da, baldin eta, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan izanik, Bizkaian duten ibilgetuaren balioa beste bi lurralde historikoetariko edozeinetan dutena baino handiagoa bada.

F) Establezimendu iraunkorrek zerga-egoitza Bizkaian dutela ulertuko da administrazio-kudeaketa edo negozioen zuzendaritza lurralde horretan egiten denean. Irizpide horren arabera egoitza zehazterik ez dagoenean, ibilgetuaren baliorik handiena dagoen lekua hartuko da egoitzatzat, aurreko E) letraren azken lerroakadaren irizpidea aplikatuz.

G) Elkarre zibilek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek zerga-egoitza Bizkaian dutela ulertuko da, haien kudeaketa eta zuzendaritza lurralde horretan egiten bada. Lehen aipatutako irizpidea (zuzendaritza eta kudeaketa) aplikatuta elkarre zibilen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek zerga-egoitza zehazterik ez dagoenean, egoitza Bizkaian dutela ulertuko da, baldin eta, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Herrian izanda, Bizkaian beste bi lurralde historikoetariko edozeinetan baino ibilgetuaren balio handiagoa badute.

8. artikulua.—*Itunak eta hitzarmenak*

Kapitulu honetan xedatutakoa gorabehera, beti bete beharko da Espainiako estatuak sinatu eta berretsi dituen nazioarteko itun eta hitzarmenetan edo hura atxikitzen denetan xedatzen dena.

I. TITULUA

ONDARE ESKUALDAKETAK

I. KAPITULUA

ZERGA-EGITATEA

9. artikulua.—*Zergapeko eskualdaketak*

1. Zergapean dauden ondare eskualdaketak dira:

a) Inter vivos egintzen bidez egiten diren honako ondasun eta eskubide hauen kostubidezko eskualdaketak: pertsona fisiko edo juridikoen ondarearen barruan sartzen diren mota guztietako ondasun eta eskubideak.

b) Eskubide errealen, maileguen, fidantzen, errentamenduen, pentsioen eta administrazio-erakundeen eraketa. Dena dela, administrazio-erakundetan salbuespen bat dago: tren-azpiegiturak edo higiezinak edo portu eta aireportuetako instalazioak erabiltzeko eskubidea lagatzeko egiten direnak.

B) Las personas físicas residentes en territorio español, que no permanezcan en dicho territorio más de 183 días durante el año natural, se considerarán residentes en el País Vasco, cuando en el mismo radique el núcleo principal o la base de sus actividades empresariales o profesionales o de sus intereses económicos.

Cuando de conformidad con lo previsto en el párrafo anterior, las personas físicas tengan su residencia en el País Vasco, se considerará que las mismas residen en el Territorio Histórico de Bizkaia cuando en el mismo radique el núcleo principal o la base de sus actividades empresariales o profesionales o de sus intereses económicos.

C) Cuando se presuma que una persona física es residente en territorio español, por tener su residencia habitual en Bizkaia su cónyuge no separado legalmente y los hijos menores de edad que dependan de aquélla, se considerará que tiene su residencia habitual en territorio vizcaíno. Esta presunción admite prueba en contrario.

D) No producirán efecto los cambios de residencia que tengan por objeto principal lograr una menor tributación efectiva.

E) Se entiende que las personas jurídicas tienen su domicilio fiscal en Bizkaia, cuando tengan en dicho territorio su domicilio social, siempre que en el mismo esté efectivamente centralizada su gestión administrativa y la dirección de sus negocios. En otro caso, se atenderá al lugar en que se realice dicha gestión o dirección.

Cuando no pueda determinarse el lugar del domicilio fiscal de acuerdo con los criterios anteriores, se entenderá que las personas jurídicas tienen su domicilio fiscal en Bizkaia cuando, teniendo en el País Vasco el mayor valor de su inmovilizado, tengan en el Territorio Histórico de Bizkaia un valor de su inmovilizado superior al que tengan en cada uno de los otros dos Territorios Históricos.

F) Se entenderá que los establecimientos permanentes tienen su domicilio fiscal en Bizkaia cuando su gestión administrativa o la dirección de sus negocios se efectúe en este territorio. En los supuestos en que no pueda establecerse el lugar del domicilio de acuerdo con este criterio, se atenderá al lugar donde radique el mayor valor del inmovilizado, aplicando el criterio indicado en el último párrafo de la letra E) anterior.

G) Se entenderá que las sociedades civiles y los entes sin personalidad jurídica tienen su domicilio fiscal en Bizkaia cuando su gestión y dirección se efectúe en este territorio. En el supuesto de que por aplicación del criterio de gestión y dirección no pueda determinarse el domicilio fiscal de las sociedades civiles y entes sin personalidad jurídica, se entenderá que tienen el mismo en Bizkaia cuando, teniendo en el País Vasco el mayor valor de su inmovilizado, tengan en el Territorio Histórico de Bizkaia un valor de su inmovilizado superior al que tengan en cada uno de los otros dos Territorios Históricos.

Artículo 8.—*Tratados y convenios*

Lo dispuesto en este Capítulo se entenderá sin perjuicio de lo establecido en los Tratados o Convenios internacionales firmados y ratificados por el Estado español, o a los que éste se adhiera.

TÍTULO I

TRANSMISIONES PATRIMONIALES

CAPÍTULO I

HECHO IMPONIBLE

Artículo 9.—*Transmisiones sujetas*

1. Son transmisiones patrimoniales sujetas:

a) Las transmisiones onerosas por actos «inter vivos» de toda clase de bienes y derechos que integran el patrimonio de las personas físicas o jurídicas.

b) La constitución de derechos reales, préstamos, fianzas, arrendamientos, pensiones y concesiones administrativas, salvo cuando estas últimas tengan por objeto la cesión del derecho a utilizar infraestructuras ferroviarias o inmuebles o instalaciones en puertos y aeropuertos.

Eskubideen edukia zabaltzea eskubide-eraketa gisa likidatuko da, baldin eta titularrarentzat ondare gehikuntza badakar. Ondare gehikuntza hori zergapetzearen oinarria izango da.

2. Zergaren likidazioaren eta ordaintzaren ondorioetarako, ondare eskualdaketatzat joko dira:

a) Zorren ordaintzen jasotako adjudikazioak eta zorrek ordaintzeko egiten direnak, bai eta zorrek bereganatzearen ordaintzen berariaz jasotako adjudikazioak ere. Zorrek ordaintzeko adjudikazioen hartzaileek adjudikazio horiengatik ordaindutako zerga itzultzeko eskatu ahaliko dute, bi kasutan: batetik, baldin eta frogatzen badute euren adjudikatu zitzaizkien ondasun eta eskubideak beste hartzekodun bati eskualdatu dizkiotela urte biko epean, kredituaren kaudimena bermatzeko; edo, bestetik, baldin eta frogatzen badute ondasun-zerbitzuok, goiko epe berean eta xede horrexetarako, hiru garren bati eskualdatu dizkiotela.

b) Aitortutako adjudikazio-gaindikinak, salbu Kode Zibilaren 821., 829., 1.056. (bigarrena) eta 1.062. (lehenengoa) artikuluetan edo funts berean oinarritutako Foru Zuzenbideko xedapenetan xedatutakoa betez sortzen direnak, eta bereziki Euskal Herriko Zuzenbide Zibilean araututa dagoen baserriaren eta haren jabegoaren oako eskualdaketatik sortzen direnak.

c) Jabari-espedienteak, nabaritasun-aktak, Hipotekei buruzko Legearen VI. titulua aipatzen dituen agiri publikoen akta osagarriak eta lege beraren 206. artikulua betetzeko ematen diren ziurtagiriak, baldin eta ez bada frogatzen eskualdaketa dagokion zerga ordainduta dagoela, edo eskualdaketa hori salbuetsita dagoela edo ez dagoela zergapean, eta baldin eta eskualdaketa titulua espediente-agiriok ordeztzen badute eta eskualdaketa espediente-agirion xede diren ondasun berengatik egiten bada. Hori horrela da salbu eta preskripzioari dagokionez, haren epea espediente, akta edo ziurtagiria ematen denetik konputatuko baita.

d) Pertsona jakin baten aldeko jabari-aintzatespenak, aurreko idatz-zatien egindako salbuespen berarekin, eta are Hipotekei buruzko Legearen 200. artikuluan eta haren Araudiaren 298. artikuluan araututako edukiera-gaindikinak ere.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ez dira zergapean egongo kasuan kasuko elementuaren azalera zuzentzeko besterik ez diren edukiera-gaindikinak, zeinak Hipotekei buruzko Legea betearazteko araudiaren 298. artikuluen 3. paragrafoan aipatzen baitira.

Halaber, ez dira zergapetuko Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak emandako katastroko zenbaki finko bat duten ondasun higiezinetan agertzen diren edukiera-gaindikinak.

Aurreko bi lerroketan adierazitakoa gorabehera, zergapean egongo dira zerga honen egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-agirien kuota gradualaren arabera edukiera-gaindikinak aitortzen dituzten eskritura publikoen lehenengo kopiak, foru dekretu honen 44. artikuluan horretarako ezarritako betekizunak betetzen direnean.

e) Ondasun higiezinaren adjudikazioak, baldin eta, sozietatea desegitean edo haren kapitala gutxitzean, ondasunak ekarri zituen bazkidea ez den beste bati adjudikatzen bazaizkio, eta higiezina ekarri zenetik sozietatea desegin arte edo kapitala gutxitu arte lau urte baino gutxiago igaro badira.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa betetzeko, sozietatetzat joko dira foru dekretu honen 34. artikuluan aipatutako erakundeak.

Halaber, idatz-zati honetako aurreko bi lerroketan xedatutakoa aplikatu behar denean, ez da kontuan hartuko ondasun higiezinaren balioa dena delako kapital gutxitzeari edo sozietate desegiteari dagokion zerga-oinarria ezartzeko, foru arau honetako 37. eta 38. artikuluetan adierazitako sozietate-eragiketen gaineko zergapetzearen ondorioetarako.

Halako kasuetan, goian aipatutako ondasun higiezinaren balioa hartuko da kontuan, eta, kostubidezko ondare-eskualdaketen modalitatean, balio horixe izango da zerga-oinarria, foru arau honetako 12. artikuluan xedatutakoa betetzeko, eta foru arau

Se liquidará como constitución de derechos la ampliación posterior de su contenido que implique para su titular un incremento patrimonial, el cual servirá de base para la exigencia del tributo.

2. Se considerarán transmisiones patrimoniales a efectos de liquidación y pago del Impuesto:

1. Bazkideen erantzukizuna nolabait mugatzen duten sozietateen kapitala eratzean edo gehitzean, zerga-oinarria bat etorriko da kapitalaren hasierako zenbateko nominalarekin edo jaulkipen primak eranstea finkatutako zenbateko nominalarekin, primarik eskatzen bada.

2. Aurrekoak ez beste sozietate batzuek egindako eragiketen kasuan eta sozietatearen kapitala gehitzen ez duten bazkideen ekarpenen kasuan, zerga-oinarria ekarpenaren balio garbia izango da. Balio garbi hori honela kalkulatu da: ekarritako ondasunen eta eskubideen balio errealarari kendu egingo zaizkio karga eta gastu kengarriak eta ekarpenaren ondorioz sozietatearen kargura geratzen diren zorren zenbatekoa.

3. Benetako zuzendaritzaren egoitza edo sozietate-egoitza aldatzen denean, zerga-oinarria bat etorriko da benetako zuzendaritzaren egoitza edo sozietate-egoitza aldatzen duen sozietateak aldaketa egiteko erabakia hartzen den egunean duen hartzeko likidoarekin. Horretarako, hartzeko likidoa zera izango da: benetako aktiboaren balioaren eta eska daitekeen pasiboaren balioaren arteko diferentzia.

4. Sozietate baten kapitala gutxitzen denean eta sozietatea desagitzen denean, zerga-oinarria bazkideei emandako ondasun eta eskubideen balio erreala izango da, gastuak eta zorrak kendu gabe.

5. Partaidetzako kontuen kontratua eratzeagatik zerga ordaindu beharko da, oinarritzat hartuta hitzarmen baten arabera merkatariak beste merkatari batzuen emaitza on edo txarretan izango duen kapital-zatia.

38. artikulua.—*Karga-tasa*

Zerga-kuota likidazio-oinarriari %1eko karga-tasa aplikatuta lortuko da.

III. TITULUA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUAK

I. KAPITULUA PRINTZPIO OROKORRAK

39. artikulua.—*Modalitateak*

1. Honako hauek daude zergapetuta, hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera:

- Notario-agiriak.
- Merkataritzako agiriak.
- Administrazio-agiriak.

2. Zerga hau kuota aldakor edo finkoen bidez ordainduko da, eta, horretarako, zera hartu behar da kontuan: zerga formalizatzeko, egilesteko edo bideratzeko ematen den agiria zergaren indarraldian zehar baliozta daitekeen kopuru edo gauzaren batengatik eman den ala ez.

3. Notario-agiriak paper tinbredunean emango dira beti, lege mailako arau berezietan salbuetsi ezean.

II. KAPITULUA NOTARIO-AGIRIAK

40. artikulua.—*Zerga-egitatea*

Zergapean egongo dira notario eskriturak, aktak eta lekukotzat, foru arau honen 43. eta 44. artikuluetan ezarritako eran.

41. artikulua.—*Zerga-oinarria*

1. Zuzeneko xedetzat baliozta daitekeen kopuru edo gauza bat duten eskrituren lehenengo kopietan, aitoritutako balioa erabiliko da oinarri gisa, eta administrazioak egiaztatu egin ahal izango du.

administradores o liquidadores de las mismas que hayan intervenido en el acto jurídico sujeto al Impuesto, siempre que hubiesen entregado los bienes.

CAPÍTULO II BASE IMPONIBLE

Artículo 37.—*Normas generales*

1. En la constitución y aumento de capital de sociedades que limiten de alguna manera la responsabilidad de los socios, la base imponible coincidirá con el importe nominal en que aquél quede fijado inicialmente o ampliado con adición de las primas de emisión, en su caso exigidas.

2. Cuando se trate de operaciones realizadas por sociedades distintas de las anteriores y en las aportaciones de los socios que no supongan un aumento del capital social, la base imponible se fijará en el valor neto de la aportación, entendiéndose como tal el valor real de los bienes y derechos aportados minorado por las cargas y gastos que fueran deducibles y por el valor de las deudas que queden a cargo de la sociedad con motivo de la aportación.

3. En los traslados de sede de dirección efectiva o de domicilio social, la base imponible coincidirá con el haber líquido que la sociedad cuya sede de dirección efectiva o domicilio social se traslada tenga el día en que se adopte el acuerdo. A estos efectos, se entenderá por haber líquido la diferencia entre el valor del activo real y el del pasivo exigible.

4. En la disminución de capital y en la disolución, la base imponible coincidirá con el valor real de los bienes y derechos entregados a los socios, sin deducción de gastos y deudas.

5. La constitución del contrato de cuentas en participación tributará sobre la base de la parte de capital en que se hubiera convenido que el comerciante participe de los resultados prósperos o adversos de las operaciones de otros comerciantes.

Artículo 38.—*Tipo de gravamen*

La cuota tributaria se obtendrá aplicando a la base liquidable el tipo de gravamen del 1 por 100.

TÍTULO III ACTOS JURÍDICOS DOCUMENTADOS

CAPÍTULO I PRINCIPIOS GENERALES

Artículo 39.—*Modalidades*

1. Se sujetan a gravamen, en los términos que se previenen en los artículos siguientes:

- Los documentos notariales.
- Los documentos mercantiles.
- Los documentos administrativos.

2. El tributo se satisfará mediante cuotas variables o fijas, atendiendo a que el documento en que se formalice, otorgue o expida tenga o no por objeto cantidad o cosa valuable en algún momento de su vigencia.

3. Los documentos notariales se extenderán necesariamente en papel timbrado, salvo que se exceptúe su uso por normas especiales de rango legal.

CAPÍTULO II DOCUMENTOS NOTARIALES

Artículo 40.—*Hecho imponible*

Estarán sujetas las escrituras, actas y testimonios notariales, en los términos que establecen los artículos 43 y 44 de la presente Norma Foral.

Artículo 41.—*Base imponible*

1. En las primeras copias de escrituras que tengan por objeto directa cantidad o cosa valuable servirá de base el valor declarado, sin perjuicio de la comprobación administrativa.

Berme-eskubide errealetan eta bermedun maileguak dokumentatzen dituzten eskrituretan, zerga-oinarria foru arau honen 12. artikuluko 2. paragrafoko c) idatz-zatian xedatutakoaren arabera zehaztuko da.

Hipotekak edo bestelako edozein berme-eskubide geroratzen denean eta haien maila hobetzen denean, zerga-oinarria maila okerragotzen zaion eskubideari esleitutako erantzukizun osoa izango da. Maila berdinketan, zerga-oinarria lehenik ezarritako berme-eskubideari dagokion erantzukizunaren zenbatekoak zehaztuko du.

Paragrafo honetan xedatutakoa betetzeko, eskritura publikoaren lehenengo kopiaztat joko da zerga hau likidatzeko dagokion zerga-administrazioan aurkeztzen den lehena.

2. Notario-aktetan aurreko paragrafoan xedaturikoa beteko da, protesto-aktetan salbu, horrelakoetan zerga-oinarria protestaturiko efektuaren balio nominalaren edo protesta eragin duen kopuruaren herena izango baita.

3. Egintzaren xedea balioztatu ezin den gauza dela ulertuko da haren indarraldi osoan, baita iraungi denean ere, oinarriaren zenbatekoa ezin denean zehaztu. Zenbateko hori ezin bada egintza egitean finkatu, zerga gauza balioztaezina balitz bezala eskatuko da, eta zenbatekoa zehazten denean likidazioa osatu ahal izango da.

42. artikulua.—Zergaduna

Subjektu pasiboa ondasun edo eskubidearen eskuratzaileria izango da, eta, halakorik ezean, notario-agiria eskatzen dutenak edo agiriaren onura jasotzen dutenak.

Bermea eratuta duten mailegu-eskrituretan, eskuratzaileria mailegu-hartzailea izango da.

Agiri batek foru arau honen 44. artikuluan xedatutakoa dela bide zergapean dauden egintza edo negozio juridiko batzuk hartzen ditue-nean, haietako bakoitzaren subjektu pasiboa zehaztuko da.

43. artikulua.—Kuota finkoa

Notarioen eskrituren eta akten jatorrizkoak eta kopiak, bai eta lekukotzak ere, folioko 0,15 euro balio duen paper tinbredunean emango dira beti. Kopia bakunak ez dira zergapean egongo.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa emaila beraren izenean ematen den bigarren kopiari eta ondoren ematen direnei aplikatuko zaie.

44. artikulua.—Kuota graduala

1. Notarioen eskrituren eta akten lehenengo kopiek %0,50eko karga-tasa ordainduko dute, egintza edo kontratu horiei dagokienez, honako baldintza hauek betetzen direnean:

- Baliozta daitekeen kopuru edo gauza bat izatea xedetzat.
- Jabetza erregistroetan, merkataritzakoetan, herri administrazioen menpeko kooperatiben erregistroetan eta ondasun higiezinaren erregistroetan inskribatu ahal diren egintzak edo kontratuak izatea.
- Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari edo Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren kostubidezko ondare eskualdaketei edo sozietate-eragiketei loturik ez egotea, foru arau honetan ezarritakoaren arabera.

2. Protesto-akten kopiek artikuluko 1. paragrafoan adierazitako karga-tasa ordainduko dute.

3. Artikulu honetako 1. paragrafoko b) idatz-zatian araututako betekizunari dagokionez, betekizuna betetzat joko da aipatutako erregistro publikoetan inskribatzeko aukera dagoenean, besterik gabe, zergapeko egintza edo negozio juridikoa inskribatzen den ala ez kontuan hartu gabe.

La base imponible en los derechos reales de garantía y en las escrituras que documenten préstamos con garantía se determinará de conformidad con lo dispuesto en la letra c) del apartado 2 del artículo 12 de esta Norma Foral.

En la posposición y mejora de rango de las hipotecas o de cualquier otro derecho de garantía, la base imponible estará constituida por la total responsabilidad asignada al derecho que empeore de rango. En la igualación de rango, la base imponible se determinará por el total importe de la responsabilidad correspondiente al derecho de garantía establecido en primer lugar.

A efectos de lo dispuesto en este apartado, se considerará primera copia de escritura pública la que se presente en primer lugar para su liquidación por este Impuesto en la Administración tributaria correspondiente.

2. En las actas notariales se observará lo dispuesto en el apartado anterior, salvo en las de protesto, en que la base coincidirá con la tercera parte del valor nominal del efecto protestado o de la cantidad que hubiese dado lugar al protesto.

3. Se entenderá que el acto es de objeto no valuable cuando durante toda su vigencia, incluso en el momento de su extinción, no pueda determinarse la cuantía de la base. Si ésta no pudiese fijarse al celebrarse el acto, se exigirá el Impuesto como si se tratara de objeto no valuable, sin perjuicio de que la liquidación se complete cuando la cuantía quede determinada.

Artículo 42.—Contribuyente

Será sujeto pasivo el adquirente del bien o derecho y, en su defecto, las personas que insten o soliciten los documentos notariales, o aquéllos en cuyo interés se expidan.

Cuando se trate de escrituras de préstamo con constitución de garantía se considerará adquirente al prestatario.

En aquellos supuestos en los que un mismo documento contenga varios actos o negocios jurídicos sujetos a tributación en virtud de lo dispuesto en el artículo 44 de esta Norma Foral, se determinará separadamente para cada uno de ellos la persona en la que concurre la condición de sujeto pasivo del Impuesto.

Artículo 43.—Cuota fija

Las matrices y las copias de las escrituras y actas notariales, así como los testimonios, se extenderán en todo caso en papel timbrado de 0,15 euros por folio. Las copias simples no estarán sujetas al Impuesto.

Lo dispuesto en el párrafo anterior será de aplicación a la segunda y sucesivas copias expedidas a nombre de un mismo otorgante.

Artículo 44.—Cuota gradual

1. Las primeras copias de escrituras y actas notariales, tributarán, además, al tipo de gravamen del 0,50 por 100, en cuanto a tales actos o contratos, siempre que cumplan las siguientes condiciones:

- Tengan por objeto cantidad o cosa valuable.
- Contengan actos o contratos inscribibles en los Registros de la Propiedad, en los Registros Mercantiles, en los Registros de Cooperativas dependientes de las Administraciones Públicas correspondientes y en los Registros de Bienes Muebles.
- No estén sujetos al Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones o a los conceptos de transmisiones patrimoniales onerosas o de operaciones societarias del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, en los términos establecidos en esta Norma Foral.

2. Por el tipo de gravamen consignado en el apartado 1 de este artículo tributarán las copias de las actas de protesto.

3. En lo que se refiere al requisito regulado en la letra b) del apartado 1 de este artículo, se entenderá cumplido éste siempre que exista la mera posibilidad de acceso a los Registros Públicos referidos, con independencia de que se inscriba o no el acto o negocio jurídico sujeto a gravamen.

III. KAPITULUA

MERKATARITZAKO AGIRIAK

45. artikulua.—*Zergapeko merkataritzako agiriak*

1. Honako hauek daude zergapean: kanbio-letrak, igorpen funtzioa betetzen duten agiriak edo letrak ordeztzen dituztenak, gordailuen ordezkagiri edo ziurtagiri eskualdagarriak, eta 18 hilabete baino gutxiagorako seriean jaulkitzen diren ordaindukoak, bonuak, obligazioak eta antzeko gainerako tituluak, inoren kapitalaren ordezkagarri direnak eta kontraprestazio gisa jaulkipenagatik ordaindutako zenbatekoaren eta mugaegunean itzuli beharrekoaren arteko diferentzia ordaindu beharra dakartenak.

2. Agiri batek igorpen funtzioa betetzen duela ulertuko da leku batetik bestera fondoak bidali direla edo zeinu baliokidea frogatzen duenean, edo ordainketa agindua dakarrenean, nahiz eta toki berean izan, edo bertan «agindura» klausula duenean.

46. artikulua.—*Zergaduna*

1. Igorleak ordaindu behar du zerga, kanbio-letra atzerrian ematen denean izan ezik, halakoetan Bizkaiko lehen edukitzaileak ordaindu behar baitu, baldin eta Espainiako lehen edukitzailea bada eta ohiko egoitza edo zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badu.

2. Igorpen-agiriak edo kanbio-letren ordezkagiriak, gordailuen ordezkagiriak eta seriean jaulkitako ordaindukoak, bonuak, obligazioak eta antzeko tituluak kargatzen dituen zergaren subjektu pasiboak izango dira haiek ematen dituzten pertsonak edo erakundeak; atzerrian ematen direnak salbuetsita daude, aurreko paragrafoan bezala. Endosatzearen txekuek endosatzaileak emandakotzat joko dira.

3. Igorpen funtzioa betetzen duten agirien xedea hornitzailerari ordaintzea edo bezeroei kobratzea denean, xede horiekin zirkulazioan jartzen dituen pertsonak edo erakundeak emandakotzat joko dira, agirian ageri dena gorabehera.

47. artikulua.—*Erantzule solidarioak*

Zerga ordaintzearen erantzule solidarioa izango da aurreko artikuluan aipatutako efektuen negoziazioan edo kobrantzan parte hartzen duen pertsona edo erakundea.

48. artikulua.—*Zerga-oinarria. Arau orokorrak*

1. Kanbio-letran, igorritako kopurua izango da oinarria, eta gordailuen ziurtagirietan, berriz, haien zenbateko izendatua.

2. Kanbio-letra mugaeguneratzeko epea jaulkipen egunetik sei hilabetekoa baino luzeagoa denean, zerga-oinarriaren bikoitzari dagokion zerga eskatuko da.

Egintza edo negozio juridiko bati dagokion kanbio-letraren ordezkari letra edo gehiago ematen badira eta ondorioz zerga gutxitzen bada, haien oinarriak gehitu beharko dira diferentzia eskatzeko. Zatiketa hori ez da egintzat joko efektuen mugaegunen artean hamaikak egun baino gehiago daudenean edo agiri bidez itundu bada aldiaren aldiko igorpenen bidez kobratzea.

3. Halaber, aurrean finkatu diren arauak igorpen funtzioa betetzen duten agiriei edo kanbio-letrak ordeztzen dituztenei ere aplikatuko zaizkie, artikulua honetako 2. paragrafoko lehen lerrokadan adierazitakoa izan ezik.

4. Inoren kapitalaren ordezkagarri diren seriean jaulkitako ordainduko, bonu, obligazio eta antzeko gainerako tituluetan, kontraprestazio gisa jaulkipenagatik ordaindutako zenbatekoaren eta mugaegunean itzuli beharrekoaren arteko diferentzia ordaindu beharra dakartenetan, oinarria jaulkitzaileak itzuli beharreko kapitalaren zenbatekoa izango da.

49. artikulua.—*Efektu tinbredunak eta eskudiruzko ordainketa*

1. Kanbio-letrak beren zenbatekoei dagokien efektu tinbreduna erabiliz eman behar dira nahitaez. Letra bat zenbateko txikiagoko efektu tinbreduna erabiliz ematen bada, letra horrek ez du izango legeek ematen dioten betearazpen-eraginkortasunik. Zerga-ordainketa honako eskala honen arabera egingo da:

CAPÍTULO III

DOCUMENTOS MERCANTILES

Artículo 45.—*Documentos mercantiles sujetos*

1. Están sujetas las letras de cambio, los documentos que realicen función de giro o suplan a aquéllas, los resguardos o certificados de depósito transmisibles, así como los pagarés, bonos, obligaciones y demás títulos análogos emitidos en serie, por plazo no superior a dieciocho meses, representativos de capitales ajenos por los que se satisfaga una contraprestación establecida por diferencia entre el importe satisfecho por la emisión y el comprometido a reembolsar al vencimiento.

2. Se entenderá que un documento realiza función de giro cuando acredite remisión de fondos o signo equivalente de un lugar a otro o implique una orden de pago aun en el mismo en que ésta se haya dado, o en él figure la cláusula «a la orden».

Artículo 46.—*Contribuyente*

1. Estará obligado al pago el librador, salvo que la letra de cambio se hubiera expedido en el extranjero, en cuyo caso lo estará su primer tenedor en Bizkaia, si es primer tenedor en el territorio del Estado español y tiene su residencia habitual o domicilio fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.

2. Serán sujetos pasivos del tributo que grave los documentos de giro o sustitutivos de las letras de cambio, así como los resguardos de depósito o pagarés, bonos, obligaciones y títulos análogos emitidos en serie, las personas o entidades que los expidan, con la misma salvedad del número anterior para los expedidos en el extranjero. Los cheques que sean objeto de endoso se considerarán expedidos por el endosante.

3. Cuando los documentos que cumplan función de giro tengan por objeto el pago a proveedores o el cobro a clientes, se entenderán expedidos por la persona o entidad que los ponga en circulación con estos fines, con independencia de la que en el documento figure.

Artículo 47.—*Responsables solidarios*

Será responsable solidario del pago del Impuesto toda persona o entidad que intervenga en la negociación o cobro de los efectos a que se refiere el artículo anterior.

Artículo 48.—*Base imponible. Normas generales*

1. En la letra de cambio servirá de base la cantidad girada y en los certificados de depósito su importe nominal.

2. Cuando el vencimiento de las letras de cambio exceda de seis meses, contados a partir de la fecha de su emisión, se exigirá el Impuesto que corresponda al duplo de la base.

Si en sustitución de la letra de cambio que correspondiera a un acto o negocio jurídico se expidiesen dos o más letras, originando una disminución del Impuesto, procederá la adición de las bases respectivas, a fin de exigir la diferencia. No se considerará producido el expresado fraccionamiento cuando entre las fechas de vencimiento de los efectos exista una diferencia superior a quince días o cuando se hubiera pactado documentalmente el cobro a plazos mediante giros escalonados.

3. Las reglas fijadas anteriormente serán asimismo de aplicación a los documentos que realicen función de giro o suplan a las letras de cambio, con excepción de la recogida en el primer párrafo del apartado 2 de este artículo.

4. En los pagarés, bonos, obligaciones y demás títulos análogos, emitidos en serie, representativos de capitales ajenos, por los que se satisfaga una contraprestación establecida por la diferencia entre el importe satisfecho en la emisión y el comprometido a reembolsar al vencimiento, la base estará constituida por el importe del capital que la emisora se compromete a reembolsar.

Artículo 49.—*Efectos timbrados y pago en efectivo*

1. Las letras de cambio se extenderán necesariamente en el efecto timbrado de la clase que corresponde a su cuantía. La extensión de la letra en efecto timbrado de cuantía inferior privará a estos documentos de la eficacia ejecutiva que les atribuyen las leyes. La tributación se llevará a cabo conforme a la siguiente escala:

Zerga-oinarria (€)	Eurotan
24,04 euro edo gutxiago	0,06
24,05 - 48,08	0,12
48,09 - 90,15	0,24
90,16 - 180,30	0,48
180,31 - 360,61	0,96
360,62 - 751,27	1,98
751,28 - 1.502,53	4,21
1.502,54 - 3.005,06	8,41
3.005,07 - 6.010,12	16,83
6.010,13 - 12.020,24	33,66
12.020,25 - 24.040,48	67,31
24.040,49 - 48.080,97	134,63
48.080,98 - 96.161,94	269,25
96.161,95 - 192.323,87	538,51

192.323,87 eurotik gorako kopuruetan, berriz, 0,018 euroko zerga ordainduko da 6,01 euro edo zatiki bakoitzeko, eta eskudirutan likidatuko da beti. Likidazioa ez bada foru arau honen 67. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako epean aurkezten, letrek galdu egingo dute legeek ematen dieten betearazpen-indarra.

2. Igorpen funtzioa betetzen duten agiriak edo kanbio-letren ordezkariak direnak eskudirutan ordainduko dute zerga, goiko zergapetze eskalaren arabera. Horretarako, halako ordainketetarako prestatutako ereduak erabiliko da, eta foru arau honen 67. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako epean aurkeztu beharko da. Epe horren barruan aurkezten ez badira, agiriok galdu egingo dute legeek ematen dieten betearazpen-indarra.

3. Atzerrian emandako kanbio-letra batek Espainiako estatuko lurraldean ondorio juridikoa edo ekonomikoa sortzen badu, letra hori eskudirutan itzuliko du Bizkaiko Lurralde Historikoko lehenbiziko hartzaileak, baldin eta aldin berean Espainiako estatuko lehenbiziko hartzaileak ere bada.

4. Foru Aldundiak, merkataritzako trafikoaren ezaugarrien edo agiriaren mekanizazio-prozesuaren arabera komenigarria dela uste izanez gero, merkataritzako agiria bera nahiz agiri horri dagokion eskudiruzko ordainketa ezin hobeto identifikatzeko neurri egokiak hartzeko betebeharra ezar dezake.

5. Seriean eta gehienez ere hamazortzi hilabeteko eperako jaulki diren bonu, ordainduko, obligazio eta gainerako antzeko tituluetan (inoren kapitalaren ordezkagarri direnetan) kontraprestazioa ordaintzen bada, hain zuzen ere, jaulkipenean ordaindutako zenbatekoaren eta mugaegunean itzultzeko konprometitutakoaren arteko diferentzia, orduan, 0,018 euroko zerga ordainduko da 6,01 euro edo zatiki bakoitzeko, eta zerga hori eskudirutan likidatuko da.

50. artikulua.—Ejektu tinbredunak egitea eta trukatzea

Ejektu tinbredunei dagozkien honako alderdi hauek Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez arautuko dira:

- Ejektuen itxura, estantapazioa, mota, ezaugarriak eta zenbakiak.
- Tinbratze zuzena lortzeko kasuak eta prozedura.
- Ejektu horiek trukatzeko baldintzak.
- Ejektuak baliogabetzeko era.

51. artikulua.—Zerga ordaintzearen ondorioak

Merkataritzako agiriak ematen direnean zerga ordaintzeak agiriari jasotako klausula guztiak biltzen ditu, kontzeptu honen ondoriozko zerga-ordainketari dagokionez.

IV. KAPITULUA

ADMINISTRAZIO-AGIRIAK

52. artikulua.—Zergapeko administrazio-agiriak

Erregistro publikoetan egiten diren aurreneurritzko idatzoharrek zerga ordaindu beharko dute, xedetzat baliozta daitekeen eskubide edo interes bat dutenean, ofizioz ordenaturik ez badaude eta epai-agintaritzaren esku-hartzerik gabe egiten badira.

Base imponible (€)	Euros
Hasta 24,04	0,06
De 24,05 a 48,08	0,12
De 48,09 a 90,15	0,24
De 90,16 a 180,30	0,48
De 180,31 a 360,61	0,96
De 360,62 a 751,27	1,98
De 751,28 a 1.502,53	4,21
De 1.502,54 a 3.005,06	8,41
De 3.005,07 a 6.010,12	16,83
De 6.010,13 a 12.020,24	33,66
De 12.020,25 a 24.040,48	67,31
De 24.040,49 a 48.080,97	134,63
De 48.080,98 a 96.161,94	269,25
De 96.161,95 a 192.323,87	538,51

Por lo que exceda de 192.323,87 euros tributará a 0,018 euros por cada 6,01 euros o fracción, que se liquidará siempre en metálico. La falta de presentación de la autoliquidación dentro del plazo establecido en el apartado 2 del artículo 67 de esta Norma Foral, implicará la pérdida de la fuerza ejecutiva que les atribuyen las leyes.

2. Los documentos que realicen una función de giro o suplan a las letras de cambio tributarán en metálico conforme a la anterior escala de gravamen mediante el empleo del modelo habilitado para ello que se presentará en el plazo señalado en el apartado 2 del artículo 67 de esta Norma Foral. La falta de presentación en dicho plazo implicará la pérdida de la fuerza ejecutiva que les atribuyen las leyes.

3. Las letras de cambio expedidas en el extranjero que surtan cualquier efecto jurídico o económico en el territorio del Estado español se reintegrarán en metálico por su primer tomador en el Territorio Histórico de Bizkaia, si es el primero en el territorio del Estado español.

4. La Diputación Foral podrá exigir, cuando las características del tráfico mercantil o su proceso de mecanización así lo aconsejen, la adopción de medidas oportunas para la perfecta identificación del documento mercantil y del pago en metálico correspondiente al mismo.

5. Los pagarés, bonos, obligaciones y demás títulos análogos, emitidos en serie por plazo no superior a dieciocho meses, representativos de capitales ajenos, por los que se satisfaga una contraprestación establecida por la diferencia entre el importe satisfecho en la emisión y el comprometido a rembolsar al vencimiento, tributarán a 0,018 euros por cada 6,01 euros o fracción que se liquidará en metálico.

Artículo 50.—Elaboración y canje de efectos timbrados

Se regularán por Orden Foral del diputado foral de Hacienda y Finanzas los siguientes aspectos relacionados con los efectos timbrados:

- La forma, estampación, especie, características y numeración de los mismos.
- Los casos y el procedimiento de obtener su timbrado directo.
- Las condiciones para el canje de tales efectos.
- El modo de efectuar la inutilización de los mismos.

Artículo 51.—Efectos del pago del impuesto

El pago del Impuesto en la expedición de los documentos mercantiles cubre todas las cláusulas en ellos contenidas, en cuanto a su tributación por este concepto.

CAPÍTULO IV

DOCUMENTOS ADMINISTRATIVOS

Artículo 52.—Documentos administrativos sujetos

Están sujetas las anotaciones preventivas que se practiquen en Registros públicos, cuando tengan por objeto un derecho o interés valuable y no vengán ordenadas de oficio y sin intervención de parte por la autoridad judicial.

53. artikulua.—Zergaduna

Aurreneurritzko idatzoharra eskatzen duen pertsonak zergadun gisa ordaindu beharko du.

54. artikulua.—Zerga-oinarria

1. Aurreneurritzko idatzoharren bidez bermatzen, argitaratzen edo eratzen den eskubide edo interesaren balioa izango da oinarria.

2. Enbargo-idatzoharren zerga-oinarria inolaz ere ez da izango enbargatutako ondasunen balio erreala baino handiagoa, ez eta enbargo-idatzoharra eragin duen kopuru osoa baino handiagoa ere.

Baldin eta enbargoaren aurreneurritzko idatzoharra jabetza erre-gistro batean baino gehiagotan egin behar bada eta horregatik hainbat likidazio egiten badira, horien guztien zerga-oinarrien batura ezin da izan aurreko paragrafoan ezarritako muga baino handiagoa.

55. artikulua.—Zerga-kuota

Erregistro publikoetan egiten diren aurreneurritzko idatzoharrek %0,50eko karga-tasa ordainduko dute, eta eskudirutan likidatuko dira.

IV. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA

ZERGA-ONURAK

56. artikulua.—Onura orokorrak

1. Foru arau honen 1. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen diren zergapetzeko hiru modalitateei kasuaren arabera ezarri ahal zaizkien zerga-onurak honako hauek dira:

a) Foru arau honen 57. artikuluan agertzen diren salbuespen subjektiboak.

b) Foru arau honen 58. artikuluan arautzen diren salbuespen objektiboak

c) Zergari buruzko foru arauaren 59. artikuluan aipatzen diren beste arau batzuk ezarritako gainerako zerga-arauak.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako zerga-onurak ez zaizkie inolaz ere aplikatuko kanbio-letrei, ez haien ordeztu erabiltzen diren agiriei, ez igorpen funtzioa betetzen duten agiriei ez eta foru arau honen 43. artikuluan xedatutakoa dela bide zergapetzeko notarioen eskritura, akta eta lekukotzei.

57. artikulua.—Salbuespen subjektiboak

Honako hauek dira Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juri-diko Dokumentatuen gaineko Zergan salbuespen subjektiboak izango duten erakundeak:

1. Estatua, Gizarte Segurantzaren eta lurralde nahiz erakunde mailako herri administrazioak, eta haien ongintzako, kulturako, irakaskuntzako eta zientzien arloko establezimenduak.

2. Irabazteko asmorik gabeko erakundeak, irabazizkoak ez diren erakundeek zerga-arabidea eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriak arautzen dituen arautegiaren arabera.

Aurreko paragrafoko erakundeek salbuespenerako eskubidea dutela egiaztatzeko, zergaren autoliquidazioarekin batera, zerga-egitatearen egiten denean indarrean dagoen ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko da, irabazteko asmorik gabeko erakundeek zerga araubidea eta mezenasgoarako zerga pizgarriak aplikatzeko araudian araututakoaren arabera.

3. Aurrezki kutxak, gizarte-ekintzetarako egiten dituzten eskuraketengatik.

4. Eliza Katolikoak eta Espainiako estatuarekin lankidetzak akordioak sinatuta dituzten elizak, konfesioak eta erlijio-elkarteak.

5. Euskaltzaindia, Espainiako Institutua eta horren barruko errege akademiak, bai eta autonomia erkidegoetan Euskaltzaindiaren antzeko helburuak dituzten erakundeak ere.

Artículo 53.—Contribuyente

Estará obligado al pago, en calidad de contribuyente, la persona que solicite la anotación preventiva.

Artículo 54.—Base Imponible

1. Servirá de base el valor del derecho o interés que se garantice, publique o constituya mediante las anotaciones preventivas.

2. La base imponible en las anotaciones de embargo en ningún caso podrá ser superior al valor real de los bienes embargados ni al importe total de la cantidad que haya dado lugar a la anotación del embargo.

Si el embargo tuviese que anotarse preventivamente en distintos Registros de la Propiedad y por este motivo se practicasen varias liquidaciones, la suma de las bases imponibles de todas no podrá exceder de los límites establecidos en el párrafo anterior.

Artículo 55. Cuota tributaria.

Las anotaciones preventivas que se practiquen en los Registros públicos tributarán al tipo de gravamen del 0,50 por 100, que se liquidará en metálico.

TÍTULO IV

DISPOSICIONES COMUNES

CAPÍTULO I

BENEFICIOS FISCALES

Artículo 56.—Beneficios generales

1. Los beneficios fiscales aplicables en cada caso a las tres modalidades de gravamen a que se refiere el apartado 1 del artículo 1 de la presente Norma Foral serán los siguientes:

a) Las exenciones subjetivas contempladas en el artículo 57 de esta Norma Foral.

b) Las exenciones objetivas reguladas en el artículo 58 de la presente Norma Foral.

c) Los demás beneficios fiscales establecidos por otras normas a que se refiere el artículo 59 de la Norma Foral del Impuesto.

2. Los beneficios fiscales a que se refiere el apartado anterior de este artículo no se aplicarán, en ningún caso, a las letras de cambio, a los documentos que suplan a éstas o realicen función de giro, ni a las escrituras, actas o testimonios notariales gravados en virtud de lo dispuesto en el artículo 43 de la presente Norma Foral.

Artículo 57.—Exenciones subjetivas

Gozarán de exención subjetiva en el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados las siguientes entidades:

1. El Estado, la Seguridad Social y las Administraciones públicas territoriales e institucionales y sus establecimientos de beneficencia, cultura, docencia o con fines científicos.

2. Las entidades sin fines lucrativos, de acuerdo con la normativa reguladora del Régimen Fiscal de las Entidades sin Fines Lucrativos y de los Incentivos Fiscales al Mecenazgo correspondiente.

Para la acreditación del derecho a la exención de las entidades del párrafo anterior, deberá acompañarse a la autoliquidación del Impuesto copia del certificado vigente en el momento de la realización del hecho imponible regulado en el Reglamento para la aplicación del régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

3. Las cajas de ahorro, por las adquisiciones directamente destinadas a su obra social.

4. La Iglesia Católica y las iglesias, confesiones y comunidades religiosas que tengan suscritos acuerdos de cooperación con el Estado español.

5. Euskaltzaindia, el Instituto de España y las Reales Academias integradas en el mismo, así como las instituciones de las Comunidades Autónomas que tengan fines análogos a los de Euskaltzaindia.

6. Espainiako Gurutze Gorria eta Espainiako Itsuen Erakundea.
7. Edozein parlamentutan ordezkaritza duten alderdi politikoak.

58. artikulua.—*Salbuespen objektiboak*

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuetsita daude honako eragiketa hauek:

1. Barne antolamenduaren zati izatera pasatu diren nazio-arteko itun edo hitzarmenen bidez emandako salbuespena duten eskualdaketa eta gainerako egintza eta kontratuak.

2. Legezko atzera-eskuratzearen bidez egiaztatzen diren eskualdaketa, hura jasaten duen eskuratzailerak zerga lehendik ordaindua badu. Ez daude salbuespen honen eremuan sartuta Euskal Herriko Foru Zuzenbideari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legearen I. liburuko V. tituluan araututako saka-eskubidea baliatzearen ondoriozko eskualdaketa. Kasu horretan, foru arau honen 22. artikuluan ezarritakoaren arabera ordainduko dute zerga.

3. Ezkontideek ezkon-sozietateari egindako ondasun eta esku-bideen ekarpenak, ezkon-sozietatea desegin ondoren ekarpenen ordaintan ezkontideen alde egindako adjudikazioak, eta horregatik ezkontideei egiten zaizkien eskualdaketa.

Salbuespen hori aitortutako adjudikazio-gaundikinek ere izango dute, baldin eta ezkontza desagitearen edo haren ekonomi araubidea aldatzearen ondare-ondorioa diren ondasunen adjudikazioetatik ateratzen badira eta ezkon-sozietatearen ondasunak ezkontideetako bati adjudikatzearen ezinbesteko ondorio badira.

Gauza bera aplikatuko da aurreko paragrafoetan aipatutako kasuetan, izatezko Bikoteak arautzeko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik osatutako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpen, adjudikazio eta eskualdaketei dagokienez.

4. Ondasunen prezioa osatzen duten diru-emateak edo, baita ere, zerbitzu pertsonalak, kredituak edo kalte-ordainak ordaintzeko egiten direnak.

Era berean, salbuetsita egongo dira kreditu eta aurrezki erakundeek hipoteka-maileguren eskriturak betearazteko egindako diru-emateen aktak, zerga behar bezala likidatu bada edo salbuespena adierazi bada.

5. Estatuak eta lurralde nahiz erakunde mailako herri administrazioek ematen dituzten interesik gabeko aurrerakinak. Herri administrazioetatik joko dira foru arau honen 57. artikuluko 1. paragrafoan aipatu direnak.

6. Lur-zatien baterakuntzak eragiten dituen eskualdaketa eta gainerako egintza eta kontratuak, landa-lurreko finken derrigorrezko trukaketenak, behar bezala baimendutako borondatezko trukaketak eta berrogei urtetik gorako errentamenduetan lehentasunez eskuratzeko eskubidea baliatzearen ondorio direnak (Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilean daude araututa), baldin eta onibarra eskuratu eta hurrengo sei urtean eskualdatzen ez bada.

7. Lurren eskualdaketa, baldin eta eskualdaketa horiek egikaritze-unitatearen jabeek ituntze batzarrei eginiko ekarpenen ondorioz eta batzarrek berek, jaso dituzten lurren proportzioan, jabe horiei egiten dizkieten esleipenen ondorioz gertatzen badira.

Birpartzelazioak eragiten dituen egintzak eta kontratuak berak, aurreko paragrafoan adierazitako baldintzetan.

Aurreko kasuetatik edozeinetan, baldin eta jabe bati esleitu zaizkion lurzoruen balioak jabeak berak jarritako lurzoruei proportzioan dagokien balioa gaunditzen badu, gaundikinari dagozkion likidazioak igorriko dira.

Salbuespen hori aplikatu ahal izateko, hirigintzako legeriak ezarritako betekizun guztiak bete behar dira.

8. Tutoreek beren karguen jardunaren bermetzat ematen dituzten bermeei dagozkien egintzak.

9. Hipoteka merkatua arautzen duen legeria berezian ezarritako betekizunak betetzen dituzten hipoteka bonu eta zedulak.

6. La Cruz Roja Española y la Organización Nacional de Ciegos Españoles.

7. Los partidos políticos con representación parlamentaria.

Artículo 58.—*Exenciones objetivas*

Estarán exentas del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados las siguientes operaciones:

1. Las transmisiones y demás actos y contratos en que la exención resulte concedida por Tratados o Convenios internacionales que hayan pasado a formar parte del ordenamiento interno.

2. Las transmisiones que se verifiquen en virtud de retracto legal, cuando el adquirente contra el cual se ejercite aquél hubiera satisfecho ya el Impuesto. No se entienden incluidas en el ámbito de esta exención las transmisiones que deriven del ejercicio del derecho de saca foral regulado en el Título V del Libro I de la Ley 3/1992, de 1 de julio, del Derecho Civil Foral del País Vasco, que tributarán según lo establecido en el artículo 22 de la presente Norma Foral.

3. Las aportaciones de bienes y derechos verificadas por los cónyuges a la sociedad conyugal, las adjudicaciones que en su favor y en pago de las mismas se verifiquen a su disolución y las transmisiones que por tal causa se hagan a los cónyuges.

Esta exención se extiende a los excesos de adjudicación declarados que resulten de las adjudicaciones de bienes que sean efecto patrimonial de la disolución del matrimonio o del cambio de su régimen económico, cuando sean consecuencia necesaria de la adjudicación a uno de los cónyuges de bienes pertenecientes a la sociedad conyugal.

Igual tratamiento se aplicará, en los supuestos a que se refieren los párrafos anteriores, respecto de las aportaciones, adjudicaciones y transmisiones que efectúen los miembros de la pareja de hecho constituida conforme a lo dispuesto en la Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho.

4. Las entregas de dinero que constituyan el precio de bienes o se verifiquen en pago de servicios personales, de créditos o indemnizaciones.

Asimismo, estarán exentas las actas de entrega de cantidades por organismos de crédito y ahorro, en ejecución de escrituras de préstamo hipotecario, cuyo Impuesto haya sido debidamente autoliquidado o declarada la exención procedente.

5. Los anticipos sin interés concedidos por el Estado y las Administraciones Públicas territoriales e institucionales, entendiéndose por tales las referidas en número 1 del artículo 57 de la presente Norma Foral.

6. Las transmisiones y demás actos y contratos a que dé lugar la concentración parcelaria, las de permuta forzosa de fincas rústicas, las permutas voluntarias debidamente autorizadas, así como las que sean consecuencia del ejercicio del derecho de adquisición preferente en los arrendamientos de más de 40 años reguladas en el Derecho Civil Foral del País Vasco, siempre que el bien raíz no se transmita durante el período de seis años siguientes a la adquisición.

7. Las transmisiones de terrenos que se realicen como consecuencia de la aportación a las juntas de concertación por los propietarios de la unidad de ejecución y de las adjudicaciones que se efectúen a los propietarios citados, por las propias juntas en proporción a los terrenos incorporados.

Los mismos actos y contratos a que dé lugar la reparcelación en las condiciones señaladas en el párrafo anterior.

En cualquiera de los casos anteriores, cuando el valor de los terrenos adjudicados a un propietario exceda del que proporcionalmente corresponda a los terrenos aportados por el mismo, se girarán las liquidaciones procedentes en cuanto al exceso.

Esta exención estará condicionada al cumplimiento de todos los requisitos establecidos por la legislación urbanística.

8. Los actos relativos a las garantías que presten los tutores en garantía del ejercicio de sus cargos.

9. Los bonos y cédulas hipotecarios que cumplan los requisitos establecidos en la legislación especial reguladora del mercado hipotecario.

10. Foru arau honen 31. artikuluko 2. paragrafoko 1., 2., 3. eta 5. zenbakietan eta 32. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako sozietate-eragiketak, kostubidezko ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen modalitateen ondoriozko zergapetzeari dagokionez.

11. Bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzeko onartutako zein onartu gabeko baloreen eskualdaketak, salbu foru arau honen 21. artikuluan ezarritakoa.

Zerga ordaintzeko araubide bera aplikatuko zaio erantzukizun mugatuko sozietateen sozietate-partaidetzen eskualdaketari.

12. Orubeak eskualdatzea eta azalera-eskubidea lagatzea, babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzak eraikitzeak; babes publikoko etxebizitzaren sustapen, eraikuntza edo lehen eskualdaketaekin zerikusirik daukaten egintzak eta kontratuak formalizatzeko eskritura publikoak, Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko kargari dagokionez; babes publikoko etxebizitzaren gaineko jabariaren lehenengo inter vivos eskualdaketa, baldin eta eskualdaketa hori etxebizitzaren behin betiko kalifikazioaren hurrengo sei urtean barruan egiten bada; babes publikoko etxebizitzak eraikitzeak eskatzen diren maileguak (hipotekazkoak zein besteak), behin betiko kalifikazioa baino lehen eskatutzen badira; xede eskusibotzat babes publikoko araubideren bati atxikitako eraikinak sustatzea edo eraikitzea duten sozietateen eraketa, kapital-zabalkuntza, eraldaketa eta bat-egiteak.

Orubeak eskualdatzeak eta azalera-eskubidea lagatzeak dakarren onura aitortzeko, kontratua babes publikoko etxebizitzak eraikitzeak xedeaz egilesten dela adierazi behar da kontratu-agirian bertan, edo, bestela, xede hori beren-beregi eman behar da aditzera agiri hori aurkezten denean. Hala ere, aitorten hori ondorioz gabe geratuko da, baldin eta hura egiten denetik hiru urte igarotzen badira behin-behineko kalifikazioa lortu gabe, edo baldin eta eraikuntza-proiektua ezin bada burutu, edozein unetan eta edozein arrazoi dela eta.

Zergarekiko salbuespena behin-behinekoz emandakotzat joko da; behin betikoa izateko, indarrean dauden xedapenak horrelako etxebizitzetarako eskatzen dituzten betekizunak bete beharko dira.

Salbuespenaren behin-behineko aitortpena eragin zuten baldintzak betetzen ez badira, edo hura ondorioz gabe geratzen bada, interesdunak aitorten egokia eginez adierazi beharko ditu inguruabar horiek. Horrek behin betiko likidazioa egitea ekarriko du, eta dagokion berandutze-interesak exijituko dira.

Aitorten hori ez aurkeztea hutsegitea da, agiri bat ez aurkezteagatik, eta hutsegite horri dagokion zehapena eskatuko da.

Nolanahi ere, behin betiko likidazioa egiten denean, likidazio horren elementu guztiak berrikusiko dira, balioak nahitaez egiaztatuko dira eta berandutza-interesak eskatuko dira.

Babes publikoko etxebizitzaren kontzeptuan etxebizitzak eta haiei lotutako eranskinak baizik ez dira sartzen.

13. Eskualdaketak eta gainerako egintzak eta kontratuak, haien xede bakarra zerga ordaintzea ekarri zuten aurreko egintza batzuen eraginkortasunik eza gaintzea baldin bada, eta egintza horiek beren ez egotea edo deuseztasuna eragiten duen akatsen bat badute.

14. Sozietateak eratzea, kapitala gehitzea, Bazkideen ekarpenak, sozietatearen kapitala gehitzea eragiten ez badute, eta Sozietatearen benetako zuzendaritzaren egoitza edo sozietate-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikora aldatzea, Europar Batasunaren kide den estatu batean egon ez badira.

15. Eskudiruzko gordailuak eta maileguak, haiek gauzatzeko modua kontuan hartu gabe, eta are ordaindukoak, bonuak, obligazioak eta antzeko tituluak ere. Zergarekiko salbuespenak gordailua edo mailegua dokumentatzen duten tituluaren ondorengo eskualdaketa ere hartuko du, baita 18 hilabete baino gutxiagorako seriean jaulkitzen diren ordainduko, bonu, obligazio eta antzeko tituluaren gainean ezarri behar den egintza juridiko dokumentatuen gaineko karga

10. Las operaciones societarias a que se refieren los números 1º, 2º, 3º y 5º del apartado 2 del artículo 31 y el apartado 2 del artículo 32 de la presente Norma Foral, en cuanto al gravamen por las modalidades de transmisiones patrimoniales onerosas y actos jurídicos documentados.

11. Las transmisiones de valores, admitidos o no a negociación en un mercado secundario oficial, exceptuando lo previsto en el artículo 21 de esta Norma Foral.

Este mismo régimen de tributación será de aplicación a la transmisión de las participaciones sociales de Sociedades de Responsabilidad Limitada.

12. La transmisión de solares y la cesión del derecho de superficie para la construcción de edificios en régimen de viviendas de protección pública; las escrituras públicas otorgadas para formalizar actos y contratos relacionados con la promoción, construcción o primera transmisión de viviendas de protección pública en cuanto al gravamen sobre Actos Jurídicos Documentados; la primera transmisión «inter vivos» del dominio de las viviendas de protección pública, siempre que tengan lugar dentro de los seis años siguientes a la fecha de su calificación definitiva; los préstamos hipotecarios o no, solicitados para su construcción antes de la calificación definitiva; la constitución y ampliación de capital, transformación y fusión de sociedades que tengan por exclusivo objeto la promoción o construcción de edificios en régimen de protección pública.

Para el reconocimiento del beneficio en relación con la transmisión de los solares y la cesión de derecho de superficie será preciso que se consigne en el documento, o expresamente se manifieste al tiempo de presentarlo, que el contrato se otorga con la finalidad de construir viviendas de protección pública y quedará sin efecto si transcurriesen tres años a partir de dicho reconocimiento sin que obtenga la calificación provisional, o cuando en cualquier momento y por cualquier motivo no pueda realizarse el proyecto de dicha construcción.

